

Enplegu Lokaleko Mahaia Arautzeko Erregelamendua.

ZIOEN AZALPENA

Erregimen Lokaleko Oinarrien Legeko 69. artikulua arabera, korporazio lokalei dagokie beren jardueri buruz ahalik eta informaziorik zabalena ematea, bai eta herriko kontuetan herritar guztien partaidetza bultzatzea ere, hori baita, izatez, sistema demokratikoan herritarren parte-hartze politikorako eskubidearen adierazpen bat gehiago.

Gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren arloko egungo aldaketa globalarekin bat etorriz, Lasarte-Oriako Udalaren egungo Sozioekonomiako Departamentuak, alkatearekin eta haren gobernu-ekipoarekin bat etorriz, erabaki du egungo gizartearen bidelagun izatea aldaketa horretan, erregelamendu honekin Enplegu Lokaleko Mahaia martxan jartzeko udalbatzarraren erabaki-proposamena garatzen lagunduz, Mahai horrek bideratuko baitu "Enpleguaren aldeko itun lokala" lortzea, non bilduko eta koordinatuko diren udalerriko instrumentu eta agente politiko eta ekonomikoak, herriko enpleguaren sustapena lortzeko xedez.

Premisa horiekin, udalek, herritarrarengandik hurbilen dauden instituzioak diren aldetik, zuzenean esku hartzen dute enpleguaren sustapenean, Erregimen Lokaleko Oinarrien Legeak propiotzat esleitzen dizkien eskumenez haratago joanik. Esku-hartze hori Legeak berak errazten du, haxe aitortzen baitu: "Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-komunitatearen beharrak eta nahiak betetzen lagun dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatzea eta nahi adina zerbitzu publiko eman ditzake." Praktikan, horren isla da udalerriek beren esparruko lurralde-barrutietan jarduera ekonomikoa eta enplegua areagotzera zuzendutako beren estrategia propioak garatzen dituztela. Ideia horrek, gainera, aliatu indartsua aurkitu du Europar Batasunean, bere oinarritzko fundazio-testuan txertatu baititu subsidiarotasunaren eta gobernanzaren printzipioak, zeinek bultzatzen baitute erabaki politikoak herritarren aldetik hurbiltasun handiagoa eta irispide errazagoa duten administrazio-mailek hartzea (entitate lokalek). Izatez, harekek esleitu dio espresuki enplegu-politikari dimentsio lokala.

Enplegua sustatzearen arloan politika efektibo bat garatuko bada, beharrezkoa da instituzioek garatutako politikak enpleguaren arloan inplikaturik dauden agente sozioekonomikoekin kontzertatzea.

Herritarren eta haien elkarrekin eta beste erakundeen parte-hartze eta kontzertazio sozialerako oinarritzko helburu horiekin, Erregelamendu honetan xedatutako erregulazioak lortu nahi duena da Lasarte-Orian enplegua sustatzeari buruz udalak hartzen dituen erabakien edukia eta asmatu izana hobetzea.

Prestatu den Erregelamendu Lokala, bere xedapen zehatzen erregulazioan, agente ezberdinen artean desiragarria den kontzertazioa bilatzen zentratu da, bai halaber koordinazioa eta, batez ere, parte-hartze funtzional zuzena etorkizuneko udal-erabakietako orientabidean, garatu beharreko enplegu-politiken edukiri buruz.

Helburu horiek lortzeko, Erregelamendu honek Enplegu Lokaleko Mahaiaren sorrera eta funtzionamendua arautzea proposatzen du, organo aholku-emaile eta kolegiatu gisa, partaidetza soziala indartzea ahalbideratuko duena, ekintzen eta programen garapenari eta diseinuari sostengu emango diena eta Lasarte-Oriako udalerrian enplegua sortzearen eta ekonomia garatzearen aldeko neurriak bultzatuko dituena.

Erregelamendu honen bidez zehazten dira beste alderdi batzuk ere, hala nola Enplegu Lokaleko Mahaiaren oinarritzko estruktura, funtzioak, epeak eta erregimen juridikoa, kontuan izanik Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren eta Prozedura Administrazio Komunen 30/1992 Lege azaroaren 26koak 22. artikuluan aurreikusitako organo kolegiatuaren izaera duela.

Horretarako guztirako erabakitzen da honako hau:

LASARTE-ORIAKO ENPLEGU LOKALEKO MAHAIA ARAUTZEKO
ERREGELAMENDUA.

ATARIKO TITULUA

ENPLEGU LOKALEKO MAHAIAREN IZAERA ETA FUNTZIOAK

1. artikulua. ERAKETA

Lasarte-Oriako Enplegu Lokaleko Mahaia sortzen da.

Enplegu Lokaleko Mahaia enplegua bultzatzeko politika publikoak ezartzeko orduan agente publiko eta pribatuak koordinatzea ahalbideratuko duen tresna gisa eratzen da, hau da, parte hartzeko, elkarlanean aritzeko eta jarraipena egiteko foro gisa, zeinetan parte hartuko duten udalak, sindikatuek, enpresariak eta, oro har, gure udalerrian enpleguaren arloan era efektiboan lan egiten duten agente sozial eta ekonomiko guztiek.

2. artikulua. ADSKRIPZIOA

Enplegu Lokaleko Mahaia, organikoki eta funtzionalki, Enpleguaren eta Garapen Ekonomikoaren arloan eskumena duen sailari adskribatua egongo da.

3. artikulua. IZAERA JURIDIKOA

Enplegu Lokaleko Mahaia organo kolegiatu gisa konfiguratu da, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren eta Prozedura Administrazio Komunaren 30/1992 Legeko 22. artikulutik 27.era bitartekoetan araututakoaren arabera.

4. artikulua. HELBURUAK ETA FUNTZIOAK:

1.- Enplegu Lokaleko Mahaiak duen helburua:

Enplegua sustatzearekin zerikusia duten politika munizipalen planifikazioan, garapenean eta ebaluazioan sektore ekonomiko eta sozial ezberdinak inplikatzeko, udalerrian enpleguaren arloan aurrera eramaten diren jarduketan bateratze-lanaren bidez haien arteko lankidetzaren sustatze, enplegurako udal-politika publikoak bultzatuz eta beste instituzioen eta agente sozial eta ekonomiko publiko zein pribatuaren jarduketekin elkarlanean arituz, udalerrian enplegua sortzeari begira.

Horretarako, Lasarte-Oriako estruktura sozioekonomikoaren bertebrazioan esku hartzen duten eragileek irizpena emateko, proposatzeko eta parte hartzeko organo aholku-emaile gisa eratzen da.

2.- Enplegu Lokaleko Mahaiak honako funtzio hauek garatuko ditu:

Enplegu Lokaleko Mahaia martxan jar dadin bultzatzea, jarraipena egitea eta elkarlanean aritzea.

Enplegu Lokaleko Mahaiko kide bakoitzak eskura dituen prestakuntza, sustapen, enplegu eta garapen lokaleko baliabide guztiak inbentariatzea eta batera jartzea.

Lasarte-Oriako udalerraren esparru lokalean batera aritzen diren administrazioen enplegu-politika aktiboak gauzatzeko orduan koordinazioa bultzatzea.

Herriko eragile sozial eta ekonomiko guztien inplikazioa, parte-hartzea eta jarduketa sustatzea.

Garapen lokala eta enplegu-politika lokalak zuzendu behar dituzten irizpideak eta lehentasunezko arloak proposatzea.

Udalerriko garapen ekonomiko eta enpresarialari buruzko debatea eta eragileen eta ideia berritzaileen arteko kooperazioa bultzatuko dituen plataforma gisa balio izatea.

Prestakuntzarekin, enpresen sorrerarekin eta, oro har, garapen sozioekonomikoarekin zerikusia duten jarduerak egin daitezten sustatzea, lehendik ere badiren ekimenetik abiatuta eta horien bilakaera eta koordinazioa bideratuz, bai halaber herriko enplegua eta garapen ekonomikoa hobetzearen arloan ekimen berriak sortzea eta sostengatzea. Aurreko paragrafoan aipatutako jarduketak, entitate bakoitzaren barne-irizpidearen arabera, gauzatu ahalko dira zuzenean edo Enplegu Lokaleko Mahaia osatzen duten instituzio eta eragile sozial eta ekonomiko publiko eta pribatu bakoitzaren enpleguko eta/edo prestakuntzako arloen bitartez.

Elkarrekiko informazio-politika iraunkor bat mantentzea Enplegu Lokaleko Mahaiaren eta bertan ordezkaturik dauden instituzioen artean.

Enpleguaren arloan instituzio, organizazio eta eragile sozial eta ekonomikoetatik egiten zaizkion proposamenak aztertzea.

Lasarte-Oriako udalerrian enplegua sustatzeko eta bultzatzeko Udalbatzari zuzendutako ekimenak, iradokizunak eta proiektuak aurkeztea eta informatzea.

Artikulu honetan planteatutako helburuak lortzea ahalbidetuko duten neurriak, ekimenak eta programak praktikan jartzean elkarlanean aritzea.

Udalbatzako kideei aholkularitza ematea enplegua sustatzeko gaietan udalerrian esku hartzeko dauden premia eta lehentasunei buruz, bai halaber gai horretaz administrazioak bere kontsideraziora jar ditzakeen beste alderdi batzuetan.

Enplegu Lokaleko Mahaian helburu horietara zuzenduta ezartzen den beste edozein.

I. TITULUA

ENPLEGU LOKALAREN ARLOKO ORGANOAK

5. artikulua. OSAERA:

Enplegu lokalaren arloan koordinazioko eta aholkularitzako gaietarako organoak hauek dira:

- a) Enplegu lokaleko asanblada
- b) Enplegu Lokaleko Mahaia
- c) Lehendakaritza
- d) Idazkaritza.

6. artikulua. ASANBLADA:

Enpleguko Asanblada izaera partizipatiboko organoa gisa eratzen da, enpleguaren arloan interesa erakusten duten edo inplikatzeko diren Lasarte-Oriako herritar guztientzat zabalik dagoena: langabeak, enpresa-sustatzaileak, eragile sozialak, hezkuntzako komunitatea, alderdi instituzionala, formazio politikoak.

7. artikulua. ASANBLADAREN FUNTZIOAK:

1.- Asanbladari dagokio:

- a) Enplegu Lokaleko Mahaia instituzioetatik bultzatuko diren helburuak, proposamenak eta proiektuak jasotzea.
- b) Enpleguaren arloan abiatutako ekimenen urteko deskargua jasotzea.
- c) Proposamenak egitea, Enplegu Lokaleko Mahaian azter ditzaten.
- d) Asanbladako erabakiak ez dira bozketaz hartuko, eta Enplegu Lokaleko Mahaia helaraziko zaizkio hark azter ditzan.

2.- Sozioekonomiaren arloko izango da Asanbladaren batzarren buru, eta haren asistentzia Enpleguaren eta Garapen Ekonomiaren arloko pertsonal tekniko arduradunaren esku joango da, zeinek jardungo baitu hango idazkari.

8. artikulua. ENPLEGU LOKALEKO MAHAIA:

Mahaia debatitzeko eta adostasunak bilatzeko foro bat; beraz, erabakiak ez dira bozketa bidez hartuko, eta bertako kide direnek "motu proprio" asumitu nahi duten izaera loteslea dute. Gauza da herriko agente sozioekonomikoak Enplegu Lokaleko Planean integratzea.

Hauek izango dira kideak:

- a) Alkatea, mahaiburu jardunez.
- b) Enplegu eta/edo Garapen Sozioekonomikoko arduraduna den zinegotzia
- c) Udaleko taldeetatik zinegotzi bana.
- d) Udalerriko sindikatu errepresentagarrienetako ordezkari bana. CCOO, UGT, LAB, ELA.
- e) Enpresari-organizazioen ordezkari bat. ADEGI.
- f) Gipuzkoako promozio ekonomiko eta enpresarialaren ordezkari bat: Sustapena - Diputazioa
- g) Michelin Fundazioaren ordezkari bat
- h) Zubigune Fundazioaren ordezkari bat
- i) Emakume enpresa-sustatzaileen elkarteko ordezkari bat: Emekin
- j) LANBIDEko ordezkari bat.
- k) Gipuzkoako Merkataritza-Ganberaren ordezkari bat
- l) Enplegu lokalaren aldeko elkarteetako pertsona bat - ASIDEL
- m) Merkatarien Elkarten ordezkari bat – ATERPEA
- n) Udalerriko enplegu-zentro berezien eta/edo desgaituen enpleguaren sustapenean lan egiten duten elkarten ordezkari bat. – ELKARTU, GUREAK.
- o) Lasarte-Oriako Udaleko Enpleguaren teknikari arduraduna.
- p) Ekonomia eta enplegua sustatzeko eskualdeko instituzioaren ordezkari bat.
- q) REASen (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea) ordezkari bat.
- r) Mahaiaren erabakiz interesgarritzat jotzen den beste edozein pertsona edo elkarte.

9. artikulua. ENPLEGU LOKALEKO MAHAIAREN FUNTZIOAK:

1.- Mahaiaren funtzioak izango dira:

- a) Lasarte-Orian enplegua sustatzeko interesgarriak diren proposamen guztiak analizatzea, debatitzea eta aurrehautatzea, Asanbladaren eta Enplegu Lokaleko Planaren proposamenen arabera.
- b) Enplegu-Mahaiaren adostutako proposamenak ezartzeko iradokizunak eta soluzioak aportatzea eta garatzea, lanpostu berriak sortzeko moduko proiektu bihurtzeko.
- c) Proiektuen segimendua.
- d) Haiek garatzeko behar den pertsonal tekniko espezialista ebaluatzea.
- e) Hautatutako proiektuak Sozioekonomiako batzordeburuari helaraztea, dagokion Batzordean eta Udalbatzarrean onetsia izateko.
- f) Asanbladari informazioa ematea bere baitan garatu diren helburu, proposamen eta proiektuei buruz, bai halaber Asanbladan debatitzen diren ekimen guztiak aztertzea.

2.- Mahaiaren ordezkaritza-funtzioak mahaiburu diharduenari bakarrik egokituko zaizkio, edo hark bere ordezkari izendatzen duen pertsonari.

10. artikulua. LEHENDAKARITZA:

Udalbatzako alkatea izango da lehendakaria.

11. artikulua.- LEHENDAKARIAREN FUNTZIOAK:

Honako eginkizun hauek dagozkio lehendakariari:

- a) Enplegu Lokaleko Mahaia errepresentatzea.
- b) Ohiko eta ohiz kanpoko bileren deialdiak egitea.
- c) Bilerako aztergaien zerrenda onestea.
- d) Bileren garapena moderatzea eta horien buru izatea.
- e) Kasua hala bada, Mahaiaren erabakiak lideratzea, betearaztea eta hedatzea.
- f) Enplegu Lokalerako ekimenak garatuko dituzten beste lantalde paralelo batzuk izendatzea.
- g) Asanbladan lehendakari aritzea.
- h) Enplegu-Mahaiaren eta Udaleko gobernu-organoen eta kudeaketa-organoen, enplegu-gaietan eskumena duten erakunde ofizialen eta udaleko arlo eta zerbitzuen arteko harremana adeitsua izan dadin zaintzea. Partaideen onarpena arbitratzea, betiere mahaikideen errespetua eta jarrera positiboa lehenetsiz.
- i) Bere lehendakari-izaerari berez datzekion gainerako funtzioak betetzea.

12. artikulua. IDAZKARITZA:

Lasarte-Oriako Udalean Enpleguko arduraduna den teknikariak jardungo du Asanbladako eta Kontseiluko idazkari.

13. artikulua. IDAZKARITZAREN FUNTZIOAK:

- a) Sostengu tekniko ematea urgazten dituen organoetan.
- b) Asanbladaren eta Enplegu Lokaleko Mahaiaren bileren akta jasotzea

14. artikulua. KIDE TITULARREN ORDEZKOTZAK EGITEA. ASISTENTZIAK.

Talde munizipalek, elkarteek eta organizazioek postu bakoitzerako titular bat eta, hala egitea posible zaienean, haren ordezkoa proposatuko dituzte.

15. artikulua. KONTSEILUKO BATZORDEKIDE TITULARRAK IZENDATZEA ETA KARGUA UZTEA.

1.- Aholku-Batzordeko kide bozdunak alkateak izendatuko ditu, eta izendapenaren proposamena hurrengo atal hauetan erabakitakoaren arabera egingo da.

- a) Udaleko talde politikoen zinegotziak, talde bakoitzak bereak proposatuta.
- b) Eragile sozialen, hezkuntza-komunitatearen, merkataritza eta dendarien elkarten eta desgaitasuna duten pertsonentzako enplegua sustatzeko lanean diharduten elkarten, Merkataritzako Ganberaren eta Lanbideren ordezkariak beren organo errepresentatibo edo exekutiboek proposatuko dituzte.

2.- Batzordekide titularren eta haien ordezkoen izendapenak eskakizun izango du haiek alde aurretik onartzea eta espresuki adieraztea helbide bat edo posta elektronikoa bat, bilera-deialdiak eta dokumentazioa hara bidaltzeko.

3.- Zinegotziak diren batzordekide titularrek, nolana ere, galdu egingo dute kargua udalbatzaren agintaldia amaitzen denean.

4.- Kide titularren kargua duten gainerakoek iraupena lau urtekoa izango da; hala ere, honako arrazoi hauengatik ere utzi dezakete kargua:

- a) Espresuki uko egiteagatik.
- b) Epai judizial irmoaren bidez kargu publikoan aritzeko ezintasuna edo inhabilitazioa deklaratzeko.
- c) Beren karguagatik batzordekide direnen kasuan, izaera hori galtzen dutenean utziko dute kargua.
- d) Proposatu zuen elkarteak edo organizazioak kargutik kentzea.

5.- Kargu hutsak, gehienez ere, hilabete bateko epearen barruan beteko dira, izendapenerako ezarritako era berdinean.

16. artikulua. ORDAINSARIAK.

Enplegu Lokaleko Mahaia osatuko duten kideek ez dute eskubiderik izango beren funtzioetan aritzeagatik inolako ordainsaririk jasotzeko.

II. TITULUA

FUNTZIONAMENDU-ERREGIMENA

17. artikulua. BILERAK.

1.- Enplegu Lokaleko Mahaiak egin ahal dituen informazioko eta prestaketako beste bilerak alde batera utzita, ohiko bilerak hiru hilabetez behin egingo ditu.

2.- Aurreko puntuan erabakitakoaz gain, Kontseiluak ohiz kanpoko bilerak egin ahalko ditu urgentziazko edo komenientziazko arrazoiengatik, zeinen deialdia Lehendakariak egingo baititu, bere ekimen propioz edo Mahaiko kideen kopuru maximoaren herenak gutxienez hala eskatuta.

18. artikulua. BERTARATUEN QUORUMA.

1.- Mahaiaren Osokoa balio osoz eratuko da lehen deialdian bertaratuta daudenean gutxienez ere kideen erdiak gehi bat.

2.- Beste gainontzean, bigarren deialdian eratuko da Mahaia, ordu erdi geroago, bertaratuen kopurua edozein dela, betiere presente badaude Enplegu Lokaleko Mahaiko lehendakari diharduena, bi mahaikide bozdun eta idazkaria.

19. artikulua. BILEREN DEIALDIA

Ohiko eta ohiz kanpoko bileren deialdia egitea betiere Mahaiburuari egokituko zaio, bai bere ekimenez, bai Mahaiko kide guztien gutxienez herenek hala eskatuta. Edozein kasutan ere, bilera bakoitzerako deialdiarekin batera erantsita joan beharko du tratatuko diren aztergaien zerrendak, eta dagokion dokumentazioak kide guztientzat eskuragarri egon beharko du.

20. artikulua BILEREN ERREGIMENA

Mahaiko lehendakariak zuzenduko ditu bilerak, hark moderatuko du debateen nondik norakoa eta komeni diren neurriak hartuko ditu bileretan ordena ona izatea bermatzeko. Era berean, bilerak eten ahalko ditu arrazoizko kausengatik.

21. artikulua. BILEREN LEKUA ETA AKTAK.

1. "Enplegu Lokaleko Mahaiaren" bilerak udalaren lokaletan egingo dira, eta idazkariak bilera bakoitzaren akta egingo du. Akta hori hamar laneguneko epean helaraziko zaie mahaikideei, eta egiten den hurrengo bileran jarriko da onespenera.

2. Organo kolegiatuak egiten duen bilera bakoitzeko akta egingo du idazkariak, zeinetan nahitaez jaso beharko baita bilerara nortzuk etorri diren, bileraren gai-zerrenda, bilera non eta noiz izan den, eztabaiden argudio nagusiak eta hartutako erabakien edukiak.

3. Herritarrei dagozkien informazio-eskubideak alde batera utzirik, Enplegu Lokaleko Mahaiaren jardunarekin zerikusia duen dokumentazio ofiziala eta txostena behar duten dokumentuak kontsultatzea eta aztertzea udaletxeko bulegoetan egin beharko da.

LEHENBIZIKO XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregelamendu honetan espresuki aurreikusten ez den guztian, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren eta Prozedura Administratibo Komunaren 30/1992 Lege azaroaren 26koaren II. Tituluko II. Kapituluaren xedatutakoaren araberrako funtzionamendua eta jardunbidea izango ditu Enplegu Lokaleko Mahaiak. Gainerako xedapenetan, aplikakizun izango da, ordezko izaeraz, Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Lege apirilaren 2koan ezarritakoa eta Entitate Lokalei aplikagarriak zaizkien gainontzeko legeak, eta bereziki Lasarte-Oriako Herritarren Informaziorako eta Partaidetzarako Udal-Araudi Organikoa, halakorik balego.

AZKEN XEDAPENA

Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Lege apirilaren 2koak 70.2 artikuluan adierazten duenaren arabera, Erregelamendu hau, legezko forman tramitatu ondoren bere edukia GLHAOn oso-osorik argitaratutakoan, publikazio horretatik 15 laneguneko epea igarotakoan jarriko da indarrean.